

LUMA BERRIEN AZTARNAK



Jazarpeneraren labirintoan, izuaren amildegian

Carmen VALOIS

Laurak. Esnatu da, izerditan, pijama bustirik. Burua jiratuz, erlojuari so egin dio: goizaldeko laurak. Loaldia bat-batean moztua beste hainbatetan bezala. Atsekabetu egin da; berriz, pentsatu du, barruko sugaeren pozioiarekin borrokan, beste gau batez.

Bostak. Pentsamendu ilunak deika sentitu ditu, amesgaiztoen tokia hartuz; atzeko atetik barruraino sartzeko prest, baimenik eskatu gabe; lotsarik gabe, etsai gorrotagarri baten gisa; goizaldeko loa eragozteko berrir; nahasketa eragiteko behin eta berriz, bere baitan; mamu bisitariak dantza eroan ilunabar bakartian.

Burua nahastuta du, makal, bihotza taupadaka, urdailean estutasun larria; garrasi mutua ahoan. Gauaren erdian, isolamendu beldurgarri eta hertsia. Izua.

Seiak. Lau bat aldez gehiago so egin dio erlojuari, azkeneko aldian, seiak. Uzkur-tuta dago.

Zazpiak. Alarmak lo sakonetik atera du.

Zazpiak eta bost. Esmatzean indargabeta sentitu da, hankak ahul, burua motel-duta; izuaren muga ikusiezina gaintutua, gaitz erdi; ke ilunak desagertuak; jaikitze-ko bidea libre; sufrimendua izaren artean lo izoztutako izerdiarekin batera; egunerokotasunari ekiteko prest.

Zazpiak eta hamar. Komunera abiatu da; ispiluaren aurrean jarrita, saiatu da zerbait arraroa antzematen bere bisaian; al-

tzakiaren bat bilatzen berriz oheratzeko; bere egonezinen arrasto nabarmen bat edo, bere sufrimenduaren aztarna nimitziorik sikiera, beste aldeko munduari atea ez zabaltzeko, bizitza etenda uzteko; alferrik ordea, bere betiko irudiarekin topo egin du.

Zazpi eta laurdenak. Dutzara sartu da, ur beroak dakarren goxotasunean pentsatuz; makurtuta, urak bere gorputza astindu du, ia erretzeraino. Sorgortua dago. Ez du indarririk ezertarako. Zaila zaio argitasunez pentsatzea, baina eguneroko liturgiaz amaigabeari ekin behar dio izuaren atzaparretatik ihes egiteko.

Ezin du gehiago. Askotan dena pikutara bidali nahi du, baina gero, indar gehiegirik gabe horretarako, atzera egiten du, aitzaki merkeaz baliatuz bere kontzientziaren ahots lotsagabeak isilarazteko.

Etzeko atea itxi eta kalera abiatu da. Zazpi eta erdiak. Autoaren bila doa; ohar-tu egin da zein sentibera, zein makal dagoen; edozein gertakariren aurrean portzelana bezain hauskor sentituz.

Ez da gaurko kontua, badaramatza hila-bete batzuk zama horren pisua gainean duela. Hasieran ez zion garrantzi handiegirik eman nahi; xehetasun hutsalak baino ez ziren, eraso txikiak, ia ikusiezinak, kate bereko ekintzak hala ere, ez kasualitatez sorturikoak; helburu berbera zutenak, alegia, bera suntsitzea edo behintzat setiatuta sentiaraztea.

Orduan, uste zuen gauza izango zela garralle ateratzeko baina, honezker, badaki zenbat sufritzen ari den egoera horretan eta zein aldapatsua egiten zaion dena; helbururik gabeko sufrikario bakartia; itzaropen gabeko amaiera.

Nolabait, orain egoera hori bere unibertso osoa bereganatzen ari da, era bortxatzaile, absolutuz; gupidarik gabe bere munitaraino sartzeko eta bere mundua esprantzarik gabeko ezkortasunez kutsatzen. Zergatik gertatzen zaio hori guztia? Zein da bere errua jazarpenera hori jasotzeko?

Ez du erantzunik aurkitzen bere buruari mila buelta eman arren, bakarrik zera daki, egindakoek mina emateko helburua dutela jabetu denetik, gertakariak jasanezinak bihurtu zaizkiola. Beti erme egotera behartzen dute, erabateko aditasunera, beti badaezpadakoan, atsedetik gabe, eraso noiz eta nondik etorriko zain. Alerta gorrian, uneoro.

Oraindik ere zeharo ulertezina egiten zaio gertatzen ari dena, batez ere era arrazionalan ulertu nahi duenean. Horrelakoetan, estutasunak harrapatu egiten du, berrir ere; gehienbat ez duelako ulertzen zergatik gertatzen zaion berari. Merezki al du? Ez al da koherentea, langile arduratsua? Zergatik bilakatzen da pertsona bat arriskutsu beste batentzako? Noiz? Zeintzuk dira arrazoiak horrela jokatzeko?

Burua argi duenean, jazarpenera, duintasunaren aurkako eraso dela pentsatzen

du. Jarrera koldarra da oso, zitala, besteari nortasuna lapurtu edo kendu nahi diona, ezerezean bilakatu arte.

Zortziak laurden gutxi. Hausnarketa horietan murgilduta doa errepidean, pentsamenduak bira azkarrean, sentipenak hegan; labirintoan dagoela sumatzen du, amildegitik gertu, gertuegi akaso; ez du ikusten ihesbidea non dagoen, ezta dagoenik ere; guztiz harrapatuta sentitzen da; oso nahaspilatuta ikusten du egoera; zerbait konpondu nahian edo, hariak gero eta gehiago korapilatu egiten direla.

Baina gauza guztien gainetik bakardadearen nekea sentitzen du. Bere baitan, anabasa eta izuaren puzzle bukaezina.

Etsipenaren aurkako borroka luzeegia suertatzen ari da, askotan zentzugabea; erreferentziarik gabekoa; hain da barrenkoia, subjektiboa, ezen zaila izaten da beste norbaitekin sentipenak, frustrazioak partekatzea. Borroka antzia. Ezintasunaren aurkako guda galduta. Sufrimenduko kontzientzaren garapen jasanezina.

Zortziak. Autotik atera da. Aurrean lantokiko atea: ohian basatira sartzeko unea.

Carmen Valois 1958an jaio zen Iruñean eta Zarautzen bizi da. Informazio Zientzietan lizentziaduna. Lanbidez, gizarte langilea. Idazle Eskolako 1. go mailako ikaslea.